



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 20a

66. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autokontsumorako hurbileko energia berriztagarrien sorrera susta dezan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurri gisa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Bartzordea sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko errepide/autobia bihur dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “ikasleen pisuak” deiturikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “España Puede” planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketarako birfinantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obraren betetzea dela-eta INTIAk egindako dokumentuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Iratxeko monasterioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan.**

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Saltoki txikiak eta tokiko merkataritza babesteko plan urgente bat gara dezan berehala.

2. Kontsumo-bonuen kanpaina bat egin dezan, behar adinako zuzkidura ekonomikoarekin, gure

erkidego osoko saltoki txikietan trukatu ahal izateko.

3. Gertuko merkataritza digitalizatzeko egiazko plan bat egin dezan, online salmenta nahiz etxez etxekoa ahalbidetzeko.

4. Komunikazio-kanpaina orokorrak eta pedagogia-ekintzak egin ditzan hezkuntzaren alorrean, gertuko merkataritzaren balioak nabarmentzeko eta kontsumo-ohiturak eta -ereduak errotik aldatzen laguntzeko.

5. Albait lasterren gara ditzan saltoki txikiak merkataritzagune handien aldean aukera berdintasuna izatea bermatuko duten tresna zehatzak”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autokontsumorako hurbileko energia berriztagarrien sorrera susta dezan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurri gisa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autokontsumorako hurbileko energia berriztagarrien sorrera susta dezan, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurri gisa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Susta dezan herritarrek parte-hartzea energia berriztagarrien bitarteko sistemen garapenean eta kudeaketan, Energia Berriztagarriko Herritar Erkidegoei bultzada eman, halakotzat ulerturik proiektutik hurbileko energia berriztagarrien eskala txikiko ekoizpenean dihardutenak, xede nagusi dutela erkidegoaren kideentzako energia-zerbitzuak eskaintzea, hala nola iturri berriztagarrietatik energiaren sorkuntza eta energiaren hornidura eta biltegiatzea.

2.- Hurbileko energia-sorkuntzaren garapenari bultzada eman diezaion, udalerriekin lankidetzan, halako moldez non toki-mailako energia-erkidegoak eratuko baitira, halakotzat ulerturik autonomoak diren entitateak, energia berriztagarriko proiektuetatik hurbil kokatuta daudenak eta helburutzat dutenak onurak ekartzea haien bazkideei, kideei edo diharduteneko toki-eskualdeei, ingurumenaren, ekonomiaren edo gizartearen esparruetan.

3.- Susta dezan administrazio publikoek, ahal den neurrian eta legez ezarritako prozedurei jarraikiz, eskueran ipintzea beren titulartasunekoak diren lursailak edo espazioak, zuzenbidearen arabera eraturik dauden energia berriztagarriko herritar erkidegoen edo toki-mailako energia-erkidegoen mesedetan, xede harturik energia berriztagarrien sorkuntzarako proiektuak edo energia-biltegiatzeakoak garatzea.

4.- Nafarroako Kooperatibei buruzko Legearen aldaketa susta dezan, energia berriztagarriko herritar erkidegoetako eta toki-mailako energia-erkidegoetako kideen eskubideak zehaztearren.

5.- Beharrezkoak diren zuzemenak egin dituzan, energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko sareetarako sarbide eta konexioaren erregelamendu-esparrua kupo arautuen bidez egin dadin, potentzia-tarteak eskainiko dituztenak, halako moldez non edonolako instalazioek bermatuta izanzen baitute konexioa egitea instalazio txiki edo ertainteko soberakinak kanporatu ahal izateko moduan.

6.- Pizgarri eta babes ekonomikoa eman dezan energia-kudeatzaileak kontratatzeke eta Nafarroako toki entitateek auditoretza energetikoak prestatzeko.

7.- Susta dezan entitate publiko nahiz pribatuek kudeaketa energetiko efizienterako sistemak prestatzea, energiaren erabilera jasagarria lortze aldera, kontsumoaren eta karbono-aztarnaren eta horien amai-kostuen murrizketaren bidez.

8.- Herritarrak efizientzia energetikoaren arloan sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko kanpaina egin ditzan, bai eta hezkuntza-programak ere, orokorrak eta asmo handikoak, horretan eragina izanzen dutenak.

9.- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du klima-aldaketaren aurkako borrokan aurrerapausoak emateko sinaturiko konpromisoak bete daitezen, besteak beste honakoei dagokienez: elektrizitate-merkatuaren berrantolamendua, elektrizitate-fakturaren berrantolamendua, bidezko trantsizioarako estrategia, gizarte-bonuaren berrantolamendua, mugikortasun jasagarriko plana, fiskalitate berdea, Green New Deal delakoaren bultzada”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea sor dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea sor dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gazteriari buruzko Foru Legearen 6.3 artikuluan ezarritakoa gara dezan Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen sorrerari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloan lankidetzaren administratiboa izateko organo gisa, eta udalekiko egiazko koordinazio bat artikulatu dezan gazteei zuzendutako zeharkako politika publikoei dagokienez.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatua lan egin dezan tokiko esparruan gazteriarentzako aisia-alternatibak bermatzeko, eta jarduerak garatzeko gune seguruak eskaini ditzan, onartuta hezkuntza-aisia, aisialdia eta hartatik heldu den erkidego-garapena ere jorratu behar direla bizi dugun egoera honetan, kontuan hartuta betiere COVID-19ak eragindako inguruabarrak direla-eta araudiak ezartzen dituen murrizketak.

3. Gazteriarekiko elkarrizketa-guneak bermatzen heldu udari begira aisia-alternatibak sustatzeko, osasun-egoerak ez baitu ahalbidetuko udan ohikoak diren jarduerak normaltasunez garatzea. Horretarako, inplikaturik dauden erakunde bidez, beharrezkoa den aholkularitza emanen da, udalek, gazte elkarteek eta gazteriaren arloko elkarte profesionalek beren jarduerak egin ahal izan ditzaten”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan Agoizko, Artziko, Longidako eta Orotz-Beteluko udalekin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin zein Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuarekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-batzorde bat era

dezan, hilabeteko epean, Agoitz, Artzi, Longida eta Orotz-Beteluko udalerriekin eta Lurralde Kohesiorako nahiz Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako departamentuekin, lurralde horri bultzada emateko bitartekoak lantze aldera, toki entitateek azalduetako premiak aintzat hartuz.

2.- Lehenengo puntuan aipaturiko lan-batzordean Ebroko Konfederazio Hidrografikoa ere ordezkaturata egonen da, oinarritzko eragilea denez gero Itoizko Urtegiaren eta Nafarroako Ubidearen eraikuntzan, garapenean eta kudeaketan”.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko errepide/autobia bihurtzeko dezan.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 13an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidea 2+2 edukiera handiko errepide/autobia bihurtzeko dezan. Mozioa Isabel

Olave Ballarena andreak aurkeztu zuen eta 2021eko maiatzaren 11ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AHTaren Udalez gaidiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko maiatzaren 13an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AHTaren Udalez gaidiko Plan Sektorialeko etxebizitza-planeamenduei berriz ekin diezaien eta azkartu ditzan. Mozioa Juan Luis Sánchez de

Muniáin Lacasia jaunakurkeztu zuen eta 2021eko maiatzaren 11ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Galdera, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako kastore-kudeaketari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako kastore-kudeaketari buruz (10-21-PES-00113). Hori dela eta, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2005eko martxotik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua kastorearen presentziaren jakitun da, haren arrastoak eta kalteak ikusi izan baitira. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, legez kanpoko askatze bat egin zen eta hortik datoz egungo ale guztiak. Askatu aurretik ez zen azterketa zientifikorik aleen jatorriaz, beste espezie batzuekiko interakzioaz eta ibai-habitaten gaineko eraginaz. Zer esanik ez, inolako baimenik gabe askatu ziren.

Eragindako autonomia erkidegoek (Nafarroa, Errioxa eta Aragoi) hainbat kudeaketa egin zituzten Ingurumen Ministerioarekin eta Europako Batzordearekin, desagerrarazteko baimena eman zezaten, legez kanpoko kastore-sarrera izateagatik (Habitategi buruzko Zuzentarauan kastorea lehentasunezko espezie gisa katalogatuta dago). Europako Batzordeak Habitategi buruzko Zuzentaraua ez aplikatzeko salbuespena onartu zuen 2006ko irailean, detektatutako kastoreak desagerrarazteko bidea emanez.

2007an eta 2008an Departamentuak banaketaren, populazioaren eta kalteen azterketak egin zituen eta espeziea atzemateko zenbait metodo prestatu zituen. Lehenbiziko aleak harrapatu ziren.

2009-2014 bitartean, kastorea zeukaten autonomia erkidegoek elkarrekin egindako ahaleginari esker, 200 ale baino gehiago harrapatu ziren. Nafarroan 100 bat ale harrapatu ziren aldi horretan.

2013an, Nafarroako Gobernuak kastorearen presentziari buruzko azterketa egin zuen Nafarroan, desagerrarazte neurrien eraginkortasuna baloratzeko: Foru Komunitateak 925 km ibai ditu guztira, eta egiaztatu zen kastoreak 677 km hartuak zituela eta 460-640 ale bitarteko populazioa zuela gutxienez.

Geroztik populazio horrek hedatzen jarraitu du eta 2017an 600-800 ale bitarteko populazioa kalkulatu zen (93 familia-talde, gutxienez ere).

2020an bildutako informazioak erakusten du gutxienez 110 familia-talde osatutako populazioa dagoela ziur aski. Espezieak berezkoa du kolonizazio eredu hori: hasierako motelaldiaren ondoren populazioa azkar ugaltzen hasten da eta ale gazteak esportatzen beste lurralde batzuetara. Urrunera joan daitezke, 170 km-ra ere bai, jatorrizko lurraldearen eta berriaren arteko eremua okupatzen joateko harik eta ibai-ibilgu nagusian populazio trinkoa izan arte. Behin ibai-ibilgu nagusia harturik, adarretara pasatzen dira. Kargaren mugara iritsitakoan haien dentsitatea eta ugalkortasuna behera hasten dira; aldiz, familia-taldean luzarago irauten dute, eta heriotza tasek gora egiten dute. Zikloa 35-40 urteren buruan betetzen da.

Gaur egun, kastorea isurialde mediterraneoko ibai guztietan dago, Pirinioetako ibaiburuetan izan ezik, nahiz eta Irati ibaiaren burualdean aurkitu den. Oraingo ez dago jasorik kantauri isurialdean kokagune iraunkorrik dagoenik.



Azken urteetan kastoreak eragindako gorabehera hauek erregistratu dira: 2007: 1; 2008: 1; 2009: 0; 2010: 5; 2011: 1; 2012: 5; 2013: 2; 2014: 8; 2015: 15; 2016: 10; 2017: 8; 2018: 8; 2019: 9, eta 2020: 14. Hona hemen gorabehera moten banaketa, ehunekoetan: fruta-laboreak, % 27,2; baso-laboreak, % 38,3; belar-laboreak, % 16,0; belar-laboreak eta urak hartutako lurak, % 1,2; belar-laboreak eta zuloak, % 1,2; fruta-laboreak eta urak hartutako lurak, % 1,2; fruta-laboreak eta urbazterreko zuhaitzak, % 2,5; urak hartutako lurak, % 2,5; zuloak, % 1,2; urbazterreko zuhaitzak, % 6,2; urbazterreko zuhaitzak eta urak hartutako lurak, % 2,5.

Oro har, kastorea ibaiertzeko landareez elikatzen da. Ibaiertzetan laboreak, baratzeak edo zuhaitz sailak daudenean, maizago gertatzen dira gorabeherak. Zenbaitetan kastoreak zuhaitzetan egindako kalteek arriskuan jartzen dute pertsonen segurtasuna gune urbanizatuen inguruetan.

Kalteak saihesteko neurriak honela sailka daitezke:

– Sarrera eragozteko hesiak: aldi baterakoak edo iraunkorrak, artzain elektrikoekin edo halakorik gabe, kastoreei ur-masa, labore edo zuhaitzietara iristea eragozteko.

– Zuhaitzak banaka babestea. Kastorearen janari izan daitezkeen zuhaitzak babestea, banakako hesiak, gutxienez metro bateko altuera duten sareak edota pintura uxatzaileak erabiliz.

– Ezpondetan zulorik ez egiteko prebentzio neurriak:

- Metal orri saretuak edota harriz zein obrako hondakinez egindako babesak, kastoreak bere gordelekuak egiteko zulatu ohi dituen egitura linealak eta ezpondak babesteko.

- Urbazterrak uholdeetatik babesten dituzten ezpondak birlerrokatzea: urbazterren azalera

handitzea, urbazterreko ezpondetako babesak ur-ibilguaren ertzetik 20 metro kanporago eramanez, gutxienez.

- Ordezko eraikuntzak: ordezko kastore-zuloak eraikitzea gizakiaren jardueretan edota eraikuntzetan batere eraginik izanzen ez duten tokietan.

– Presen eraikuntzaren prebentziorako:

- Ur-lastera eta espezie basatiak (arrainak eta abar) pasatu ahal izateko gailuak.

- PVCzko hodiak, luzetarakoak edo T formakoak, hotsik ateratzen ez dutenak, dike edota presetan sartzen direnak horiek hondatu beharrik izan gabe, ur-lasterari nahi diren uholde-mailetan eusteko.

- Elementu atzera-eragileak, hala nola burdin hesiak edo sare-iragazkiak.

- Metalezko hesiak drainatze sistemen edota hoditerien inguruan, kastoreei presak egiteko lanak eragozteko.

Ikuspuntu administratibotik, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak azaroaren 20ko TED/1126/2020 Ministro Agindua onetsi du, kastorea Babes Bereziko Espezieen Zerrendan sartzen duena. Kastorea jada zenbait autonomia erkidegotan dagoenez, Nafarroak azterketa orokorra egiteko eskatu dio ministerio horri, gutxienez gai hauek ikertu eta zehaztuko dituena: espezie horren eta lehendik badiren habitat eta espezieen arteko bizikidetzaren egokia eta bizikidetzaren horretarako baldintzak, gizakien jardueretikiko egungo interakzioak eta aurreikusten ahal direnak, eta kontserbazio egoera egokia. Halaber, espezie hori kudeatzeko arauak eta jarraibideak ezartzeko eskatu dio.

Iruñean, 2021eko martxoaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

## **Galdera, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00114 zenbakiko galdera egin

du, idatziz erantzutetako. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Dauzkagun azken datuak 2016koak dira, eta hemen kontsultatzen ahal dira:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/informeencuestavivienda2016.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/informeencuestavivienda2016.htm)

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## **Galdera, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00115 zenbakiko galdera egin

du, idatziz erantzutetako. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Dauzkagun azken datuak 2016koak dira, eta hemen kontsultatzen ahal dira:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/informeencuestavivienda2016.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Vivienda/Ciudadanos/Actualidad/informeencuestavivienda2016.htm)

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00116 galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Dauzkagun azken datuak "Nafarroako gazteen emantzipazioari buruzko inkesta 2019" azterlanarenak dira. Nafarroako Gazteriaren Institutuak egin du, eta hemen kontsulta daiteke:

<https://www.juventudnavarra.es/imagenes/documentos/encuesta-de-emancipacion-de-la-poblacion-joven-de-navarra-2019-390-es.pdf>

2021-03-03an hauek lirateke Emanzipa programari buruz eskatu dituzun datuak:

	Kop.
Onartuta/Berrituta	2.484
Onartu/Berritu zain	5
Bajak	1.139
Ukatuta	819
Iraungita	1.048
Aurkezturiko eskaerak, guztira	5.495

Emanzipa programan eskaerak banakakoak dira.

Onartutako prestazioak hilean 461.925,55 eurokoak dira, orotara.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

## Galdera, "ikasleen pisuak" deiturikoei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, "ikasleen pisuak" deiturikoei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00117 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutetako. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Ez daukagu daturik Nafarroan aktibo dauden "ikasle pisuen" kopuruaz, horietan bizi diren ikasleen kopuruaz eta alokairuagatik batez beste ordaintzen dutenaz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria, José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-21/PES-00118 zenbakiko galdera idatzia egin du. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

- Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 742/2020 Ebazpenean aipatzen diren dirulaguntzak, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentariei jasotzen dituztenak, dirulaguntzarako eskubidea duten babes ofizialeko etxebizitzetako errentariei 2020ko apirilera, maiatzerako eta ekainerako onartutako igoera bereziaren isla dira, % 75eko dirulaguntza onartu baitzen horientzat.

Hori guztia bat dator Koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen 12.2 artikuluekin:

“12. artikulua. Etxebizitza babestuetako errentarientzako dirulaguntzak.

1. Alokairu Poltsan sartutako etxebizitzaren edo etxebizitza babestuen errentamendu kontratueta-ko titularrei ematen zaizkien dirulaguntzak automatikoki berrituko dira, betiere 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era eskatu behar diren kasuetarako.

2. Aurrekoa gorabehera, 2020ko martxoaren 31n dirulaguntza baten onuradun ziren familia-unitateen edo pertsonen kasuan, kasu guztietan aitortuko den dirulaguntza-portzentajea errentaren % 75ekoa izanen da, 2020ko apirilaren 1etik ekainaren 30era arteko aldirako.”

- 1.708 errentari izan ziren neurri horren onuradun, norbanakoak zein familiak. Haietatik 413k % 25eko dirulaguntza jasotzen zuten lehen, eta 1.295ek % 50eko dirulaguntza jasotzen zuten lehen.

Batez beste, neurriaren aurretik, hilean 206,88 euroko dirulaguntza ematen zen, eta neurria ezarri ondoren hilean 352,77 euroko dirulaguntza eman zen hiru hilabete horietan.

Herriaren arabera:

HERRIA	ONURADUNAK
Ablitas	3
Altsasu	6
Antsoain	24
Agoitz	6
Arguedas	4
Artika	5
Aiegi	1
Barañain	20
Berbintzana	9
Beriain	16

Berriogoiti	7	Milagro	10
Berriozar	66	Murchante	44
Burlata	37	Muru-Asterain	1
Burutain	1	Mutiloa	4
Cadreita	2	Noain	5
Caparroso	3	Orkoien	7
Cárcar	5	Iruña	856
Zarrakastelu	16	Arrada	1
Cascante	16	Ribaforada	21
Castejón	15	Sarriguren	195
Cintruénigo	42	Tafalla	12
Zizur Txikia	2	Tutera	112
Corella	16	Valtierra	1
Cortes	14	Alesbes	15
Doneztebe	7	Atarrabia	21
Lizarra	7	Zizur Nagusia	14
Fitero	4	Zudairi	1
Fustiñana	12	Orokorra, guztira	1.708
Uharte	4		
Irurtzun	7		
Lekunberri	1		
Lerin	1		
Martzilla	3		
Mélida	5		
Mendigorria	1		

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Galdera, “España Puede” planari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “España Puede” planari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak galdera egin du (10-21/PES-0119) “España Puede” ekitaldiari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako lehendakariak horretaz ematen dion informazioa:

España Puede izenekoa da Espainiako Gobernu Europa Batasunera helarazten ari den esparru-proposamena, Next Generation proiektuak aurkezteari eta funtsak jasotzeari begira. Jada funtsak esleitzen ari zaizkio Nafarroari —bai hemengo administrazioei bai ekimen pribatuari—, zehazki React EU programakoak, eta Nafarroa ari da ministerioetan interesa deklaratzeko adierazpenak aurkezten, baita zuzenean bere proiektu-proposamenak ere, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barneko funtsak eskuratu ahal

izateko, dagozkien deialdiak edo administrazio-prozedura ofizialak hasten direnean.

Ildo horretatik, Iruñean jardunaldi bat egin zen non Espainiako Gobernuak goi mailako ordezkari-tza izan zuen Pedro Sánchez presidentearen bidez. Ekitaldi horretan jendaurrean aurkeztu ziren, batetik, Espainia Europan aurkezten ari esparru estrategikoa —Nafarroa esparru horretan parte hartzen ari da bere proposamenekin— eta bestetik, ekimen publikoak nahiz pribatuak funtsak eskuratzeko lanetan erabili beharko dituzten gakoak.

Informazio jardunaldi hori Baluartean egin zen, erakunde, prestakuntza-zentro, teknologia-zentro eta agente ekonomiko eta sozialentzat, ekimen

pribatuarentzat oro har eta herritarrentzat. Nafarroako Gobernuari 21.867,96 euroko gastua eragin zion, kontuan harturik ekitaldia egiteko emandako zerbitzuak, hala nola argiztapenerako, soinuak eta proiektzioak baliabide teknikoak eta aretoaren alokairua, eta, horrez gain, agertokiaren eta gonbidatu eta hedabideentzako aretoaren muntaketa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an.

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketak birfinantzatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketak birfinantzatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 2160 irteera-zenbakiarekin erregistratua, 2021eko martxoaren 8an (10-

21/PES-120 galdera), Gobernuaren 2021eko otsailaren 17ko erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketak birfinantzatzeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

1. Galdetu da ea 358.083.214 euroko gehiengo zenbateko muga-egun arruntak birfinantzatzeko xedez Gobernuaren 2021eko otsailaren 17ko erabakian aurreikusten diren zorpetze-eragiketek aurrezpenik ekarriko duten horien kostu finantzarioetan. Hori dela eta, hau esan behar da:

Aipatu erabakiak zehazten duenez, aurtengo urterako baimendutako zorpetzea 358.083.241 eurokoa da guztira, eta horietatik 244.583.214 euro erabiliko dira aurten osorik edo zati batez mugaeguneratzen diren mailegu eta bonuen berrizatzea finantzatzeko. Hona hemen xehetasunak:

## 2021ean mugaeguneratzen diren mailegu eta bonuen zerrenda

Zorra/Mailegua	Titularra	Zenbatekoa	Interes mota	Interesa (%)
Zorra	Nafarroako Gobernua	207.190.000,00	Finkoa	4,0
Bankinter-en mailegua	Nafarroako Gobernua	2.160.000,00	Finkoa	0,7
Bankinter-en mailegua	Nafarroako Gobernua	2.500.000,00	Finkoa	0,5
Deutsche Pfandbriefbank-en mailegua	Nafarroako Gobernua	14.750.000,00	Aldakorra	0,3
Deutsche Pfandbriefbank-en mailegua	Nafarroako Gobernua	8.333.334,00	Aldakorra	0,3
EPPak	Nafarroako Gobernua	6.228.310,00	Finkoa	5,0
Caixabank-en mailegua	NICDO	2.692.310,00	Aldakorra	1,0
Caixabank-en mailegua	CENER	729.260,00	Aldakorra	0,2
<b>Guztira</b>		<b>244.583.214,00</b>	<b>Batez besteko kostua</b>	<b>3,6</b>

Ikus daitekeenez, berriztatu beharreko mailegu eta bonuen bolumena Nafarroako Gobernuaren zorpetzeari eta enpresa publiko eta elkarte publiko-pribatuen (EPP) zorpetzeari dagokie.

“Interesa (%)” zutabeaz azaltzen da zer interes tasarekin hitzartu zen eragiketa bakoitza (eragiketarako erreferentzia aldakorra badu eta ez finkoa, azken interes tasa indarduna da).

Egiazta daitekeenez, aurtengo mugaeguneratzen diren zorpetzeak batez beste % 3,6ko kostu haztuta du.

Zorpetze hori berriztatzeak aurrezpen finantzariorik ekarriko duen baloratzeko, % 3,6ko kostu hori ekitaldian formalizatzen diren eragiketen batez besteko kostuarekin konparatu behar litzateke.

Berriztatze horren zati bat gauzatzen hasita dago. Iragan martxoaren 31n Nafarroako Foru Komunitateak bonu bat jaulki zuen: 150 milioi euro eta % 0,25eko interesa. Horrek erakusten du zenbaterainoko interes-aurrezpena lortzen ari den muga-egun arruntak berriztatuz, hain interes tasa txikiak ditugun une honetan.

Mugaeguneratzen diren mailegu eta bonuen gainerako zenbatekoa ekitaldian zehar estaltzen joan da. Finantza-merkatuek egungo mailei eusten badiete, etorkizuneko berriztatze horien batez besteko kostua % 0,5 - % 1,0 ingurukoa izan liteke, erreferentzia gisa harturik Espainiako Altxorraren oraingo kotizazioa —oinarritzat hartzen baita autonomia erkidegoen eragiketarako—, eta eragiketa horiek formalizatzean ezartzen den epearen arabera. Kontuan izan behar da, epea zenbat eta luzeagoa izan, tasak orduan eta handiagoak direla, eta autonomia erkidegoak Espainiako Altxorra baino garestixeago finantzatzen direla, inbertsiogileek eskualde bati ezartzen dioten kostu handiagoaren isla.

Azken batean, erraza da egiaztatzea aurtengo muga-egunak birfinantzatzearen kostua nabarmen txikiagoa izanen dela mugaeguneratzen diren eragiketen kostua baino, eta garrantzizko aurrezpena lortuko dela interesetan.

2. Birfinantzate eragiketen ezaugarri dagoenez, galdetu da ea laster mugaeguneratzen eta kitatzeko xedez ordaindu behar diren eragiketarako diren ala laster mugaeguneratzen ez diren zorpetze-eragiketarako diren. Adierazi behar da aipatu erabakiak hizpide dituen birfinantzate eragiketen xedea 2021eko muga-egunak berriztatzea dela, nahiz zorra osorik mugaeguneratzen delako, Nafarroaren Zorraren 207,19 milioi euroko obligazioak kasurako, nahiz bullet motakoak ez diren zoroedo maileguen amortizazio partzialei dagozkielako, Bankinter entitatearekin edo Deutsche Pfandbriefbank-ekin hitzartutako maileguak kasurako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 9an.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obren betetzea dela-eta INTIAk egindako dokumentuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obren betetzea dela-eta INTIAk egindako dokumentuari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 10-21/PES-00122 galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak idatziz erantzun dezan, "Nafarroako Ubidearen 2. fasean dekalajerik gabeko hodi bikoitza egitearen komenigarritasuna" dokumentua dela-eta. Hona Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa: 2020ko urriaren 27an, Nafarroako Ubidearen obren jarraipena egiteko Estatua-Nafarroa Batzordeak eta CANASako Administrazio Kontseiluak bilera bana egin zuten eta haietan erabaki zen Nafarroako Ubidearen 2. fasean bi hodi egitea aldi berean, Erribera kalitatezko urez hornitzeko.

Hala, proiektuaren errentagarritasun sozial eta estrategikoa lehenetsi zen. Aukeratutako konponbideak abantaila nabarmenak ditu aztertutako beste aukeraren aldean (bi hodi dekalajearekin). Lehenik, bigarren faseko eremu ureztagarri osoaren garapen azkarragoa ekarriko du, hasieratik 21.522 hektarea ureztatu ahalko baitira. Nekazaritzaren, industriaren eta hiri hornikuntzaren plangintza estrategikoa egitea ere ahalbidetuko du.

Bi hodi aldi berean eraikitzeak, gainera, horniduraren berme hobea eskainiko du matxurak gertatzen direnean edo mantentze lanak egiten direnean. Faktore hori oso garrantzitsua da ureztapenerako eta, bereziki, hornidurarako.

Nabarmenezkoa da, gainera, ingurumenaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik eragin txikiagoa sortuko dela lurraldean, esku-hartze bakarra egi-

nen delako. Era berean, paisaia eta ingurumena lehengoratzeko lanek gutxiago iraunen dute.

Azkenik, ikuspuntu ekonomikotik, aukeratutako konponbideak aurrekontu txikiagoa du bi hodi dekalajearekin eraikitzeak baino: 220 milioi euro lehenbizikoak eta 225 milioi euro bigarrenak.

Bilera horiek egin aurretik, Lurralde Kohesiorako kontseilariak aholku-dokumentu edo -txosten bat eskatu zion INTIAko Ureztatzeen Arloari, Nafarroako Ubidearen 2. faseko proiektuan dekalajerik gabeko hodi bikoitza ezartzearen komenigarritasunari buruzkoa.

Azpimarratu behar da dokumentu hori sinatu gabe egotearen arrazoia: aholku-dokumentu edo -txostena denez, hura prestatu zuen talde teknikoak ez zuen beharrezkotzat jo sinadura jartzea. Dokumentu hori ez zen inongo administrazio-espediteri gehitzekoa, eta, beraz, ez zen administrazio-txosten bat, izatez.

Fakturazioari dagokionez, esan behar da ez zela mandaturik egin, informazio-eskaera baizik, eta, horregatik, Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez duela deus ere ordaindu.

Era berean, kontseilari honek ez daki Nafarroaren ordezkari gisa CANASako Administrazio Kontseiluaren bileran parte hartu zutenek zer dokumentu edo txosten eskuratu ahal izan zituzten Nafarroako Gobernuko departamentuetatik eta enpresa publikoetatik beren informazio pertsonalerako, Nafarroako Ubidearen bigarren fasean ur eroanbidea eraikitzeko konponbide teknikoari buruz CANASAK erabakia hartzeari begira.

CANASako Administrazio Kontseiluak 2020ko urriaren 27an egindako bilera edo Nafarroako Ubidearen obren jarraipena egiteko Estatua-Nafarroa Batzordeak egindako bilerak direla-eta, adierazi behar da haietan aipatu egin zela dokumentu horren edukia, bai eta beste dokumentu, txosten edo akta batzuen ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an.

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez



## **Galdera, Iratxeko monasterioari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Iratxeko monasterioari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00123) Iratxeko monasterioari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak, 2020ko urtarrilaren 29an, Iratxeko monasterioaren titulartasunaren itzulketari eskatu zion Turismoaren, Estatu Idazkaritzari eta Paradores entitateko lehendakariari. Eskaera horri erantzunez, Turopañako lehendakariak berretsi zuen hasiak zirela Ogasun Ministerioarekiko izapideak, organo horrek baitu eskumena berresleipena egiteko. Oraindik ez da formalizatu titulartasunaren berreskuratzea.

2021ean egingen diren inbertsioei dagokienez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak Iratxeko monasterioaren Errenazimentuko klaustroaren

hegoaldeko estalkiak konpontzeko obrak adjudikatzeko prozedura egin du. Adjudikazioaren zenbatekoa 192.278,73 euro da, BEZa barne, 2021eko Aurrekontuko A20001-A2110-6021-337100 partidaren kargura ("Suspertu Plana. Nafarroako Gobernuaren monumentuak kontserbatu, zaharberritu eta egokitzea").

Monasterioaren mantentze- eta garbiketa-egonera dela-eta, Ondare Historikoaren Zerbitzuak uste du egokitze proiektu integral bat egin behar dela behin monumentuaren erabilera zehazten denean. Bitartean kontserbazio obrak soilik aurreikusten dira.

Monasterioaren kanpoaldearen hirigintza-kudeaketari dagokionez, hori lurzatiaren titularren eskumena da. Aiegiko Udala parte baten jabea da eta egokitze proiektuaren proposamenak egin beharko ditu, betiere monumentuaren inguruneak daukan IKO babes maila kontuan harturik.

Iratxeko Andre Maria abadia-elizaz denaz bezainbatean, 2020an amaitu ziren elizako zorua industeko eta zaharberritzeko obrak. Guztizko zenbatekoa 766.602,68 euro da, eta lan hauek egin dira: zorua berritzea, instalazio elektrikoa eta argiak berritzea eta altzarrietako batzuk berritzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriarekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00124), Nafarroako Gobernuak Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

*“Salaketa, Laguntza eta Sentsibilizazio Bulegoa mantentze aldera Nafarroako SOS Arrazakeriak eta Nafarroako Gobernuak sinatutako hitzarmenaren seigarren klausulak honako hau jasotzen du: “Diruz lagundutako jarduera betetzen dela kreditatzeko, entitate onuradunak 2020ko abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko du hitzarmenaren xedea betetzean egindako gastuen justifikazioa, bai eta horiek ordaindu izanarena ere, aurreratutako diru-kopuruaren pareko zenbatekoagatik hain zuzen ere, eta kreditatu egin beharko da jasotako funtsak eman ziren xederako ez beste ezertarako baliatu direla”. Eta horretarako eman behar zen dokumentazioa zehazten da.*

*1.- Departamentuaren ustez, entitateak zer epetan aurkeztu behar zuen dokumentazio hori? 2020ko abenduaren 10ean?*

*2.- Entitateak noiz igorri zuen dokumentazio hori? nola igorri zuen?*

*3.- Entitateak noiz eskatu zuen dokumentazio horren parte bat aurkezteko luzapena? nola egin zuen eskaera?*

*4.- Departamentuak eskaera horri erantzun al zion? nola erantzun zion?*

*5.- Geroago aurkeztu ahal izatea eskatu zen dokumentazio hori jaso al da jada? Noiz eta nola jaso da?”*

Erantzuna

Aipatu hitzarmenaren seigarren klausulak honako hau dio: “Diruz lagundutako jarduera betetzen dela kreditatzeko, entitate onuradunak 2020ko abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko du (...) justifikazioa (...)”. Parlamentari jaunak, PEI-00297 informazio-eskaeraren bidez, dokumentazioa aurkeztu izanaren frogagiri batzuk eskatu ditu lotura dutenak idatziz egindako galdera honekin. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak SOS Arrazakeria erakundeari baimena eman dio Nafarroako Arrazakeriari buruzko Urteko Txostena geroago aurkez dezan.

Zehazki, informazio-eskaera horren erantzunean egiaztatu ahalko duzu dokumentazioa 2020ko abenduaren 9an igorri zela Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez. Gero dokumentazioa zuzentzeko eskaera bat egin zen. Dokumentazio hori 2021eko otsailaren 22an igorri zen Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, eta urteko txostena 2021eko martxoaren 25ean aurkeztu zen, posta elektronikoz.

PEI-00297 informazio-eskaeraren erantzunean adierazi zen bezala, luzapena eskatu zen, eta telefonoz ebatzi zen, urtarrilaren 26an. Luzapen-eskaeraren xedeko dokumentazioa 2021eko martxoaren 25ean jaso zen, adierazi den bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

## **Galdera, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasunari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-

00125), jakin nahi baitu norena den Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatian (40°38'52'' N 2°3'1''W) dagoen XII. mendeko uharkaren titulartasuna. Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Aiegiko 2. poligonoko 372. lurzatiaren titulartasuna ez da Nafarroako Gobernuarena. Lur-ondasunen Erregistroko ondasunen titulartasuna datu babestua da 12/2006 Foru Legearen arabera, eta titularraren baimenik ezean irispide mugatua du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Muesko erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasunari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 16ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00126) argibide hauek eskatzeko: Norena da Muesko 1. poligonoko 597. lurzatian dauden erromatarren garaiko presaren eta Erdi Aroko errotaren titulartasuna? Baldin eta pribatua bada (Parlamentuko batzordean hori esan zitzaigun), kontuan

hartuta aurkikuntzaren interes historikoa nahiz ondarezkoa eta bertan jada egiten ari den inbertsioa, zer izapide egiten ari dira titulartasuna Nafarroako Gobernuarena izan dadin? Hona Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Muesko 1. poligonoko 597. lurzatiaren titulartasuna ez da Nafarroako Gobernuarena eta lurzati hori jabetza pribatukoa da. Lur-ondasunen Erregistroko ondasunen titulartasuna datu babestua da 12/2006 Foru Legearen arabera, eta titularraren baimenik ezean irispide mugatua du.

Nafarroako Gobernuak esku-hartze arkeologikoak egiten ari da titularraren baimenarekin. Ez da beharrezkoa jabea Nafarroako Gobernuak izatea lan horiek egin ahal izateko, eta jabetza ez litzateke oztopo izaneren interes kulturalerako ondasunen deklarazioa egiteko, beharrezkotzat joko balitz, ondasun hori babeste aldera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 15ean

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca  
Eснаоla Bermejo

---